

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Behin betiko onestea 2020ko aurrekontua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez 2020ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da, eta hau da laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

GASTUEN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Langileen gastuak	181.756,46
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	213.316,90
3. Finantza gastuak	7.850,00
4. Transferentzia arruntak	65.427,39
5. Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk	6.000,00
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6. Inbertsio errealak	606.125,84
9. Finantza-pasiboak	24.000,00
Gastuen aurrekontua, guztira	1.104.476,59

Diru sarreraren egoera

DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Zuzeneko zergak	256.932,63
2. Zeharkako zergak	20.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	54.510,00
4. Transferentzia arruntak	175.920,50
5. Ondare bidezko diru sarrerak	4.050,00
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6. Inbertsio errealak besterentzea	15.707,15
7. Kapital transferentziak	487.356,31
8. Finantza-aktiboak	
9. Finantza-pasiboak	90.000,00
Diru sarreraren aurrekontua, guztira	1.104.476,59

Aldi berean, eta bat etorritik apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin, osorik argitaratzen da udal honek onartutako lanpostu zerranda 2020rako.

2020ko lanpostu zerrenda

1. Karrerako funtzionarioak:

1.1 Gaikuntza nazionalekoak.

Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzailea; plaza kopurua: 1; A1/A2 taldea; titulazioa: Estatutu osorako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik; hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe; lantokia: udaletxea; administrazio egoera: beteta; lanaldia: osoa; destino osagarriaren maila: 26; betetzeko era: lehiaketa; berariazko osagarria: 22.874,08 euro.

1.2 Administrazio orokorrekoak.

Eskala: administrariak; azpieskala: laguntzaileak; plaza kopurua:1; taldea: D; titulazioa: Eskola Gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2005eko urtarrila; lantokia: udaletxea; administrazio egoera: beteta; lanaldia: osoa; destino osagarriaren maila: 18; betetzeko era: lehiaketa; berariazko osagarria: 10.361,34, gehi 2.863,00 diruzaintzako zereginengatik.

2. Lan kontratu mugagabeko langileak:

Eskala: berezia; plaza kopurua: 1; taldea: E; titulazioa: eskola ziurtagiria edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe; administrazio egoera: kentzekoa; lanaldia: partziala; destino osagarriaren maila: 8; lantokia: udal eraikinak; berariazko osagarria: 9.416,26 euro.

3. Udalbatzako kideen ordainsariak eta diru esleipenak:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hauek dira udalbatzak onartutako aurrekontuari buruzko udal araudian jasotzen diren kalte-ordainak eta bileretara joateagatiko zenbatekoak:

a) Alkateak urtean 28.295,15 euro jasoko ditu alkatetzari eta udal gobernuari dagozkion lanak betetzeagatik.

b) Osoko bilkura, bilera eta batzordeetan parte hartzeagatik, zinegotziek (alkateak izan ezik) 60 euroko dieta kobratuko dute konpentsazio bezala, joaten diren bilkura bakoitzeko.

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Zambrana, 2020ko urtarrilaren 27a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI